

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Cabanillas eta Monteagudon herri-lurren desafektazioak onartuta

*Ardi ustiategi batera sarrera eta hargunea sortzera bideratuko dira, eta herri-lurren ondarea zabaltzera, hurrenez hurren*

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 10

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran bi akordio onetsi ditu zeinen bidez Cabanillas eta Monteagudoko udaletxeetako herri-lurretan desafektazioak egitea onartu den.

Cabanillas dagokionean, “Corraliza El Vecino” eremuko 2.644m<sup>2</sup> dira eta horiek haragitako ardien ustiategiko sarrera eta harguneak egitera bideratuko dira. Lagatzea 20 urteetarako egingo da eta partikularrak urteko 81,45 euro eta BEZa ordainduko du.

Monteagudon, “Prado Alto” eremuko 1.047m<sup>2</sup> desafektatuko dira, zeinak jabego partikularreko “Tradelcabezo” eremuko 1.915m<sup>2</sup>engatik trukatu diren. Transakzio honen helburua bi aldeen interesekoa da, izan ere partikularrak bere nekazaritza ustiategia handituko du eta Udaletxeak herri-lurren ondarea zabalduko du.